

---

## SAN SILVESTRE DONOSTIARRA TXIKIA

---

### ARAUDIA

San Silvestre Donostiarraren jarduera osagarri gisa, eta hura baino egun batzuk lehenago (igandea 26ean), haur lasterketa bat antolatuko da. Bertan, 13 urte arteko neska-mutilek parte hartu ahal izango dute, honako kategoria hauetan:

- ❖ TXIKIAK, 6 - 7 urte. Ibilbidea: 220 m
- ❖ BENJAMINAK, 8 - 9 urte. Ibilbidea: 375 m
- ❖ ALEBINAK, 10 - 11 urte. Ibilbidea: 565 m
- ❖ INFANTILAK, 12 - 13 urte. Ibilbidea: 1.130 m

- Lasterketa asfalto gainean jokatu da, Autonomia kalean zehar antolatuko den ibilbidean. Irteera eta helmuga Easo plazan izango dira.
- Kategoria bakoitzaren irteera 11:00etatik aurrera egingo da; beraz, lasterkari guztiak ordu-laurden lehenago bertan egotea eskatzen dizuegu.
- **Izen-ematea gure web gunearen bidez egitea posible da, [sansilvestredonostiarra.com](http://sansilvestredonostiarra.com)**
- **Parte hartzeak 3 euroko kostua izango du, eta bildutako dirua irabazi-asmorik gabeko elkarteari emango zaio osorik.**
- **Dortsala jasotzeko abenduaren 26ean 10:00 tatik aurrera Arroka plazan.**
- Parte-hartzaile guztiei kamiseta bat eta Lacturale produktu bat oparituko zaizkie dortsala jasotzen duten unean, eta kamiseta hori jantzita parte hartu beharko dute lasterketan.
- Ez da saririk izango lehen sailkatuentzat; lasterketaren helburua hurrek parte hartzea da, ez lehia sustatzea.
- Proba amaitutakoan, Geltokiren eskutik txokolatada bat eskainiko zaie parte-hartzaileei.
- Antolakuntzak ez du bere gain hartzen arau hauek ez betetzeak sor litzakeen kalteen erantzukizunik ez eta lasterkarien axolagabekeriak edo arduragabetasunak eragindakorik; hala ere, probak berezkoak izan ditzakeen ezbeharrak estaltzeko Istripuetako eta Erantzukizun Zibileko Asegurua du.
- Izena ematean baimena ematen zaie antolatzaileei lasterketaren edozein argazki, filmazio, grabaketa edo bestelako edozein irudi erabiltzeko, trukean ordain ekonomikoaren ezein eskubide izan gabe.

### AMARA KIROL ELKARTEA

San Silvestre



Donostiarra

GARA

SUPER  
AMARA

marisco  
MARISCOS

Lacturale